

## HORRELA KOAK GERTATU OHI DIRA

Aitziber Agirre

*Zornotza, 15 urte*

Edonork ezin izan dezake nik dudan zoritxarra. Besteak entretenitzeko sortua naiz, margo eta ideien arteko lehergailuak eztanda egin ondoren. Nahiz eta leku askotatik eskaintzak eduki, nagusiek ez dute nehork ni eramaterik nahi; haien ustez beharra primeran betetzen dut: jendea ikuskatzea, haiek ni begiratzen nauten bitartean. Lehengo baterarte, nire bizitza arras monotonoa izan da.

Aste erdi aldera, besteengandik nabarmendutako gizon bat agertu zen. Distira berezia zerioten bere begiei; barneraino iragaten ziren, gutxi-gutxi-ka nire erraiak aztertuz. Argazki pare bat atera eta alde egin zuen. Gauean, errota bueltaka eta biraka nerabilen gizakume haren agerketa misteriotsuaz oroitzen. Biharamunean, pausoak errepikatuz, ordu berean azaldu, begirada misteriotsu hura jaurti eta ospa egin zuen. Horrela hurrengo egunean, eta hurrengoan, eta... domekararte. Egun harretan ez zen azaldu; horrek ez ninduen arduratu ordea, astebukaeretan ez baitut aspertzeko betarik izaten. Astelehenean, urtean zeharreko gainontzekoetan bezala, lanlekua ertsirik izango zen; nik, berriz, urtean zeharreko gainontzekoetan bezala, zaindari gelditu beharko nuen, denen ama bainintza.

Egunak berea egina zuen, gaua jabetu zen

zeruaz. Karriketako argiak pizturik zeuden, haiei esker ikusten nituen kideak. Iskina guztietara so egin eta bakea nagusi zenez, atsedean hartzea erabaki nuen.

Klik! ixila, pauso hots gardenak. Goizaldeko laurak inguru izango ziren, itzal azkar batek gela zeharkatu, korridore ahoko kamera laser batez itsutu eta aurrera zerraien. Nik ezikusiarrena egin nuen. Hurbiltzen zebilen, gerturatzen. Bere hatsa, gero eta sarkorragoa zen, latzagoa. Tipi-tapa, tipi-tapa, tipi-tapa,... Bidaia juxtu nire aurrean bukatu zuen, ez lehenago ez beranduago. Zergaitik? Laster jakin nuen erantzuna. Makutotik zaku bat atera ostean, bertan sartu ninduen. Baztertu eta ezerezetik, nire antz izugarriko beste bat laga zuen nire tokian. Lepoan hartu eta aurreko bidea eginenez, pasilutik pasatu, komunera joan, hango leiha-tila zabaldu eta kanpora jausi eginenez, irtenbide gabeko karrika batean aurkitu nuen ene burua. Patxadatsu, kalean behera hasi zen.

Gau hotza, negutiarra genuen. Azal leuna teinkatzen zidan espiritu hilgaitz hark minberatuta ninduen. Haizeak firili-farala, poltsaren zulo nimoetatik iraganez, hezurak dantzarazten zizkidan. Halako batean, nire txoferra geratu egin zen. Auto bateko atea ireki eta bertan sartu ninduen kontu handiz. Berarentzako oso garrantzitsua nintzen nonbait. Han, bestela nengoen; ez haize ez hotz, irratiko esatariaren ahots fina eta musika geldoa soilik. Bahiketa bat baino, zita erromantiko bat ematen zuen: bera eta biok bakarrik, autoan, ilar-

giaren argitan, kantu melodikoez lagundurik. Giltza kontaktuan barneratu, biratu eta kotxea martxan ipini zuen. Zarata gorra atera zuen, beraz, ez zen auto oso zaharra. Bizkor gindoazen. Kaletako zuhaitz eskasen itzalak somatzen nituen fiiium! beraien albotik igarotzean. Irrati uhinek "You are mine" abestiaren notak jaurtitzen zituzten, belarrirako gozagarri zirenak. Txist! Aparailua itzali zuen, ixiltasuna nagusi.

Ordu pare bat ibili ondoren balaztada gogorrak aurreraka bota eta zorura erori nintzen. Artean iluna zen. Autotik irten, atea zabaldu eta aldean hartu ninduen. Eskailerak igotzen hasi ginela sumatu nuen. Tontorrera heltzean txirrinojo zuen. Lehenengotan ez ziguten kasurik egin, gero emakumezko batek ireki zuen atea. Lurrin gozoa zerion, garesti horietakoa. Burubarnean, bere aurpegia imajinatu nuen: emakume dotorea eta argia izango zen, ilehoria eta ederra. Pasiluan aurrera joan ginen. Pauso hotsek ohiartzuna egiten zuten, beldur nintzen. Gela batera iritsi eta lehen hitz trukaketa izan zuten:

– Zelan joan da dena, Mathieu? Inork ikusi al zaitu?

– Lasai zaitetz, Carolie, primeran egin dut dena.

– Hobe horrela denontzat, zuretzat batik bat. Nehork harrapatuz gero, zuregana eroriko litzateke erru guztia. Ea, erakutsi lortu duzuna.

Bat-bateko argitasunak itsutu egin nau, dagoneko iluntasunera ohituta bainengoen. Ez dakusat ezer, zinemako pantaila bezain zuri dut paisaia,

norbaitek begien aurrean izara bat jarriko balit bezala. Bista berreskuratutakoan, egongela izugarri batean gaudela konturatu naiz. Dena luxu eta distira da: horma guztiak larru gorritz babestuta daude; nagoen eserlekua, haritz egurrezkoa dela garbi dago eta bost metrotako mahaia ere kalitate onekoa da. Gela barrenean dagoen behesuak, giroari ikutu berezia ematen dio:

– Oso ondo, Mathieu. Zerbait egiten badakizu behintzat!

Emakume dotorea zen bai, eta jakintsua ematen zuen, baina ez zen ederra eta are gutxiago ilehoria. Beltzarana zen eta aurpegi erdian, monumentu bat bailitzan, bele-sudur ikaragarria zeukan.

– Berandu egin da, ohera noa.

– Ondo lo egin, andrea.

Eta hala, bakarrik utzi naute nire pentsamenduetan barneratuta. Ez dakit zergatik bahitu nauten ere zertarako nahi nauten, baina ziur diru kontuak tartean daudela. Sugarrei begira nago. Haserre dirudite eta kolore bizi horiekin, barneko amorrua kanporatzen dute; beraien egoera, kanpotik ni bezala begira daudenei jakinarazi nahi die. Begiak goruntz eramanez, koadru handi bat atzeman dut, gizon zahar baten irudia da. Ziurrenik etxekoen arbasoren bat izango zen. Kaskazuria da, bere bizar eta bibotearekin. Kuriosua da baina, egun batzuk lehenago ikusitako gizon misteriotsu hura gogorarazten dit bere begi-tarteak. Begiak gero eta pisutsuago sentitzen ditut, astunago.

Pam! Atearen zaratak itzartu nau. Jadanik egu-nargia dugu eta eguzki izpiak indartsu ageri dira lainoen artetik lurrera heldu nahian. Agian amets-gaiztoa izango nuen eta dena fikzioa izango zen, baina ez, ingurura so egin eta dena errealitate gordina dela ohartu naiz.

Mathieu etorri zait bila. Eskuetan hartu eta etxe-an barrena narabil. Gela guztiak luxuzkoak dira, sukaldea ere bai, nabari da etxe honetan dirua soberan dutela. Mailak igoz eta igoz, ate ttipi baten aurrera heldu gara. Maratila biratu eta barrura sartu gara. Oso ongi argiztatutako ganbara da. Sabaia kristalez josita dago eta hortik errege gore-nak bidalitako zerbitzariak erraz iragaten dira. Hormetako apaletan, kolore guztietako margo pote eta pintzelak daude, denak ongi sailkatuak. Aulki batean utzi nau eta alde egin du mutilak. Usain hau atsegin dut, biriketaraino barneratzen den horietakoa da. Bai, jaioberria bainintz senti-tzen naiz margo usain hau arnastean.

Oinotsak sumatzen ditut atzekaldetik eta ezin naiteke bueltatu nor den ikusteko. Ez da edonola-koa izan nire harridura bere aurpegia nerearen aurrean eduki dudanean, “gizon misterioitsua” zen! Izuikara ziztatsu bat nabaritu dut bizkarrezurrean zehar. Dudarik gabe, egongelan zegoen koadruko gizakumea bere aita edo aitona zen. Oraino ere, begirada sarkor harekin aztertzen ninduen. Aurreko aulkian jesarri eta koloreak nahasteari ekin zion. Itxura lasaia zuen, gorputz erori eta aur-pegia arraikoa zen, putz eginez lurrera ziplo doan

horietakoa. Apaletako batera altxa, pintzel pareta hartu eta berriz, lehengo lekura itzuli zen. Ulezko makila haietako bat hartuz, oihalean hasierako marrak pintatu zituen. Sakon arnastu ostean, lasai-lasai, hizketan hasi zitzaidan:

– Hiru egunez izango zara nirekin. Gero, hau baino leku apainago batera eramango zaituzte. Ganbaratxoa zabalagoa izan zitekeen. Niri horrela gustatzen zait. Margotu beharrekoarekin batuago nago. Azkenerako, lagunminak izango gara. Ni, Gerard naiz, margolaria. Ogibidez, abokatua nauzu, baina duela hiru bat urte... lanetik bota ninduten.

Bat-batean bisaia areago txuritu zitzaion eta begiak gorritu. Negar egiteko presto zegoen. Malkoak barrurantz isurtzea erabaki zuen ordea. Pena ematen zidan. Nire ustez margotzera behar-zen zuten. Agian preso zeukaten etxe hartan, inora joan ezinik! Ez, nola edukiko zuten bere etxean giltzapean? Asko kosta arren hitzegiten jarraitu zuen:

– Emazte eta seme-alaba bi ditut, nituen hobe esanda, orduan utzi baininduten. Margoa dut lagun bakarra, beraren bidez, jendeari nire sentimenduak adierazten dizkiot. Tinta darion milaka suge nire esanetara dagoela pentsatze hutsarekin, munduaren jabe somatzen dut ene burua, aske sentitzen naiz.

Ez zen erraza zertaz pentsatzen ari zen igartzea, aurpegia ez zuen barnearen ispilu. Egun osoan zehar nire alboan izan nuen eta bere bizitzaren

berri eman zidan: nola familia aberats bateko semea zen; oso ikasle ona izan zela; ezkondu eta haurrak izan zituela...; dena galdu zuen arte, ez zidan gehiago kontatu. Argi artifizialaren beharra genuen elkar ikusteko. Logale zela adierazi eta beherantz abiatu zen. Nik ere, lo egitea erabaki nuen.

“Aske naiz! Parisko kaleetan barna nabil. Ez da erraza non nagoen jakitea, ez baitut hau ezagutzen. Noraezean, aurreruntz jotzea bururatu zait, patuak erabaki dezala non geratu behar dudan. Zuzen-zuzen, mandoa bainintz noa. Instant batean, gorputza ahul sentizen dut, indarge. Jesarleku bat topatzeko bista jaso dudanean, kristalezko piramide erraldoi bat ikusi dut. Eguzki isladak txunditurik, barrura noa. Sartu eta arte museoa dela ohartu naiz, mirakulu bat legez. Indarrak berreskuratu ditut. Sendo naiz berriro. Han barrenean, jendetza izugarria dago, zein baino zein zaratatsua goak. Hurbilduz noa, pertsona multzoa iraganez denek esperotakoa aurkitu dut. Zer da dakusadana? Ni neu naiz!”

Gerard dator. Amets-gaiztoa izan dut. Arratse-rarte, Carolie etorri arte, biharamunean moduan joan da dena. Umore txarrez datorkigu, aurpegian nabari zaio.

– Gerard, noizko amaituko duzu? Bezeroak eskean dabilta.

– Oso konplikatua da. Zahar itxura eman behar zaio eta horrek, denbora darama. Etzirako prest egongo da.

- Ez dut uste. Bihar goizean, Bienara bidean izango da. Ze ez duzu nahiko denek zer gertatu zen jakitea, ez?

Hori esanda aldegin zuen. Orduan bai, gizonak negarrari ekin zion, ezin izan zion amorruari eutsi. Altxa eta apaletako poteak lurrean hustu zituen. Koloreetako putzu bat eratu arteko bakerik ezin-zuen izan. Gero, ni margotzen jarraitu zuen. Egongelako erlojuak hamabiak jo zituenean, ni bizkarrean hartu eta kontu haundiz, jauregitik irten ginen. Egurrezko arasa haren tik-tak arina besterik ez zen entzungai. Atea poliki-poliki irekiz alde egin genuen. Ilargiaren aurpegiari so eginez, alai zegoela nabaritu nuen, gauzak ongi irtengo zitzaizkidan. Urrunean, herrixka bat azaltzen zen. Hark bultzaturik edo, Gerardek erritmoa azkartzeari ekin zion. Biok ere, itxaropen izpiak genituen bihotzaz gailendurik Konturatu orduko, gure energi iturri hartako polizi komisaldegian geunden. Lagunei gertatutakoa ulertarazi ondoren, sirena eta guzti, Parisa eraman gintuzten autoz. Han, galdera mordoa itaundu eta gero, lanera bueltatzen utzi zidaten. Ametsean ageritako moduan, aske nintzen!

Ez naiz logura, bizitzan eduki nezakeen adiskide bakarra dut gogoan. Asko kosta zaio baina eguzkia, hiriaren sortaldetik ageri da. Gaua eta dakarrena gorroto dut: Bakardadea, denbora luzea, iluntasuna, amets gaiztoak... Egunero legez, zabaldu aurretik, zaindaria bueltaxka bat ematera etorri da. Egunkaria irakurtzen dabil. Azalean nire argazkia ageri da eta ondoan honako hau jartzen du:



*“Azkenengo hiru egunetan Parisko Louvre museoan egon den Leonardo Da Vinci maisuaren ‘Gioconda’ arte lana ez da benetakoa izan. Atzo gizon batek adierazi zuen eran, Mathieu izeneko gazte batek, aipatu koadruek igandea gauzez hartu eta bere ordezkari bat utzi zuen. Melun inguruko etxe batera eraman zuen. Han Carolie anderea zeukan zain. Salatzailea, Gerard izenez ezagutua, pinturara faltsu bat egitera behartu zuten. Emakumea, originala eta gezurretakoa, atzerrian saltzeko asmoz zebilen. Gerard, ekintza horrekin konforme ez eta etxetik alde egin zuen. Momentuz, Mathieu eta Carolie giltzapaturik daude.”*

Pi, pi, pi! Irekitzeko ordua iritsi da. Arrapaladan, nagusi, ume, gazte, nigana datoz. Ikutu, aztertu, zaindariak lanez lepo daude, babestu nahi naute baina ezin. Denak desberdinak dira, berdina gura dute ordea: benetakoa naizela frogatzea. Handik aste batera, sukarra pasatutakoan, Gerard dator bisitan.

– Bisitan natorkizu. Lehenagotik ere, mehatxatuta ninduten. Mathieu kartzelatik ateratzearen diru mordoa eskaini zidan sugedorri purtzil horrek eta, noski, nik ezin muzin egin. Honetarako, artxi-boak lapurtu behar izan nituen. Harrapatu eta kalera bota ninduten ugazabek. Langabezian nengoenez, emazte zekenak, seme-alabak kendu zizkidan. Nire buruaz beste egitear egon nintzen. Bi horiek, bazuten nire pintatzeko zaletasun honen berri eta lan hau agindu zidaten, bizitzan gelditzen zitzaidan bi argi bristadak itzaltzeko mehatxupean.

Poliziek, joan behar zutela esan eta nigandik urrun nola zeramaten ikusi nuen. Egunen batean, aske geratzean, beragaz aurkitzea gustatuko litzaidake. Nork esango zukeen “gizon misterioitsu” hura, Gerard, arima bizkia izango nuela?